BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4827

AGINDUA, 2013ko azaroaren 8koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2013ko Euskal Turismo sariak ebazten dituena.

Euskadiko Turismo sariak arautzen dituen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2011ko martxoaren 16ko Aginduaren 8. artikuluan zehaztutakoaren arabera (2011ko martxoaren 28ko EHAA, 60. zk.), Euskal Turismo Sariak emateko 2013ko ekitaldiko deialdia iragarri duen Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2013ko uztailaren 3ko Ebazpena ikusita (2013ko uztailaren 19ko EHAA, 138. zk.), eta horretarako izendatutako Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena ezagututa, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.

1.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2013ko ekitaldiko Euskal Turismo Sariak honako hauei ematea:

Euskal Turismo Saria 2013: Azkena Rock Festival.

Bi aipamen berezi: Hospederia Los Parajes (Laguardia) eta Jolaski, S.L. (Aisialdi eta natura alorreko ekintzak).

2.– Onuradunek, 2011ko martxoaren 16ko Aginduan ezarritakoari jarraikiz, goraipamen, aintzatespen edo aipamen publikoa jasoko dute horretarako antolatutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENAK

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 8a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.